

ERRAMU-DOMEKEA JAUNAREN NEKALDIAN – A

Jaunari lagun egingo deutsagu Aste Santu honetan, Jerusalemara sartzen danean, bere heriotza eta irainean, bere eskaintza eta berbizkundera. Bere maitasuna, izan bedi zuekin.

Senide maiteok:

Garizumako aldi honetan, bihotzak gertatzen gabiltz, penitentziaz eta maitasun egintzaz. Hurrean dogu Pazko-jaia. Eliza guztiarekin batean batu gara gaur, Jaunaren Pazko-misterioari hasiera emoteko. Misterio hori Jesukristoren Heriotza ta Biztuera dira. Hori beteteko sartu zan Jesus Jauna Jerusalemeko bere uri santuan.

Beraz, gu salbatzeko egin eban sarrera horren gomutagarria ospatu daigun fedez eta maitasunez, eta jarraitu deiogun, gure Jaunari eta lagundu, bere kurutzean bat eginda, bere biztueran eta bizian ere bat egin daigun.

ERRAMUEN BEDEINKAPENA

Egin dagigun otoitz:

Jainko ahalguztidun betikoa,
Bedeinkatu + egizuz erramu-adar honeek;
eta egizu, Kristo gure Erregeri
goraka ta kantari jarraitzen deutsagunok,
Beronen bidez, betiko Jerusalemara heldu gaitezala.
Errege bizi da-ta, gizaldi ta gizaldietan.

□ JESU KRISTOREN EBANJELIOA SAN MATEOREN LIBURUTIK – Mt 21, 1-11

Jerusalenera hurreratu eta Oliomendi ondoan Betfagera heldu ziranean, Jeusek bere ikasle bi bialdu zituan, esanez:

“Zoaze aurreko auzo horretara eta berehala aurkituko dozue asto bat lotuta, bere umearekin; askatu eta ekarri egidazuz. Inork ezer esaten badeutsue, erantzun: ‘Jaunak behar ditu eta berehala bihurtuko deutsuz’ “.

Guzti hau jazo zan, profetak esan bete zedin:

“Esaiozue Siongo alabari: ‘Horra nun datorkizun zure erregea apal-apal, asto gainean jarrita, asto zamari baten umearen gainean’ “.

Joan ziran ikasleak eta egin eben Jesusek agindu eutxena; ekarri zituezan astoa eta astakumea eta euren estalkiz txamaltu zituenean, gainean jarri zan Jesus. Jendetzeak bere soin-gainekoak bidean zabaltzen eutsozan; beste batzuek zugatz-adarrak ebagi eta bidena botaten ebezan; eta aurretik eta ondoren joiazanak oihuka inoen: “Hosanna Debiden Semeari! Bedeinkatua, Jaunaren ziaenean datorrena! Hosanna Goi-goikoari!”

Jesus Jerusalemene sartu zanean, herri guztiak harriturik itauntzen eban:

“Nor dogu Hau?

Berarekin etorri jendeak, barriz, esaten eban:

“Hau Jesus profeta da, Galileako nazaretarra”.

Jaunak esana.

DOMINGO DE RAMOS EN LA PASIÓN DEL SEÑOR – A

SALUDO DEL PRESIDENTE

El sacerdote y el pueblo se signan, mientras el sacerdote dice: “En el nombre del Padre y del Hijo y del Espíritu Santo”. Después saluda al pueblo como de costumbre, y hace una breve monición, en la que invita a los fieles a participar activa y conscientemente en la celebración de este día, con estas palabras u otras semejantes:

Vamos a acompañar al Señor en esta Semana Santa, en su entrada en Jerusalén, en su muerte y humillación, en su entrega y en su resurrección. Que su amor esté con todos vosotros.

Queridos hermanos:

Ya desde el principio de la Cuaresma nos venimos preparando con obras de penitencia y caridad. Hoy nos disponemos a inaugurar, en comunión con toda la Iglesia, la celebración anual del Misterio pascual de la pasión y resurrección de Nuestro Señor Jesucristo quien, para llevarlo a cabo, hizo la entrada en la ciudad santa de Jerusalén.

Por este motivo, recordando con fe y devoción esta entrada salvadora, acompañemos al Señor para que, participando de su cruz por la gracia, merezcamos un día tener parte en su resurrección y vida.

BENDICIÓN DE LOS RAMOS

Oremos:

Dios todopoderoso y eterno,
santifica con tu + bendición estos ramos
y a cuantos vamos a acompañar a Cristo
aclamándolo con cantos,
concédenos entrar en la Jerusalén del cielo,
por medio de él.

Él, que vive y reina por los siglos de los siglos.

□ LECTURA DEL SANTO EVANGELIO SEGÚN SAN MATEO – Mt 21, 1-11

Cuando se acercaban a Jerusalén y llegaron a Betfagé, en el monte de Los Olivos, envió a dos discípulos diciéndoles:

- Id a la aldea de enfrente, encontraréis enseguida una borrica atada con su pollino, los desatáis y me los traéis. Si alguien os dice algo, contestadle que el Señor los necesita y los devolverá pronto.

Esto ocurrió para que se cumpliese lo dicho por medio del profeta:

«Decid a la hija de Sion: “Mira a tu rey, que viene a ti, humilde, montado en una borrica, en un pollino, hijo de acémila”».

Fueron los discípulos e hicieron lo que les había mandado Jesús: trajeron la borrica y el pollino, echaron encima sus mantos, y Jesús se montó. La multitud alfombró el camino con sus mantos; algunos cortaban ramas de árboles y alfombraban la calzada. Y la gente que iba delante y detrás gritaba:

- ¡“Hosanna” al Hijo de David! ¡Bendito el que viene en nombre del Señor! “Hosanna” en las alturas!

Al entrar en Jerusalén, toda la ciudad se sobresaltó preguntando:

- ¿Quién es este?

La multitud contestaba:

- Es el profeta Jesús, de Nazaret de Galilea.

Palabra del Señor.

Lehenengo irakurgaian eskaintzen jakun Morroiaren irudia bere bidearen aurkezpena da: adorez betetako hitza izan gura dau lur jota dagozan guztientzat.

Zerbitzariak Jainkoa bera dau laguntzaile bere oinazean. Eta oinaze hori salbatzaile bihurtuko da.

ISAIAS PROFETEAREN LIBURUTIK - Is 50, 4-7

Jainko Jaunak berba egiteko trebatu nau, bihotz-jausiei adore-berbea emoteko.
Goizero deust belarria erneazoten, ikasle onak lez entzun dagidan.
Jainko Jaunak belarria edegi deust, eta nik ez deustat aurka egin, ez atzera jo.
Bizkarra eskeini neutsen joten ninduenei, matrailak, bizarretik tiraka egiten eustenei.
Ez neutsen aurpegia alboratu irainei eta txistuei.
Jauna dot laguntzaile; horregaitik, ez naz kikildu;
horregaitik gogortu dot aurpegia, harkaitza lez,
badakit-eta ez nazala lotsagarri izango.

Jaunak esana.

La figura del Siervo, que se nos ofrece en la **primera lectura**, es una autopresentación de su propio camino: quiere ser palabra de aliento para todos los abatidos.

Serbitzariak Jainkoa bera dau laguntzaile bere oinazean. Eta oinaze hori salbatzaile bihurtuko da.

LECTURA DEL LIBRO DE ISAÍAS – Is 50, 4-7

El Señor Dios me ha dado una lengua de discípulo; para saber decir al abatido una palabra de aliento.
Cada mañana me espabila el oído, para que escuche como los discípulos.
El Señor Dios me abrió el oído; yo no resistí ni me eché atrás.
Ofrecí la espalda a los que me golpeaban, las mejillas a los que mesaban mi barba; no escondí el rostro ante ultrajes y salivazos.
El Señor Dios me ayuda, por eso no sentía los ultrajes; por eso endurecí el rostro como pedernal, sabiendo que no quedaría defraudado.

Palabra de Dios.

Bigarren irakurgaian entzungo dogun ereserkiak zera dinosku: Kristok nahiago izan ebala giza zoritxarra bere egin, barrutik salbatzeko.

Horregaitik, kristauok zoritxarra zer dan jakin egin behar dogu, laguntza eraginkorra emoteko.

SAN PAULO APOSTOLUAK FILIPOARREI EGINDAKO GUTUNETIK - Flp 2, 6-11

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik, ez eutsan gogor eutsi Jainkoagaz bardin izateari; bestela baino, bere izaeraz hustu egin zan morroi-izaerea hartuz, eta beste edozein lez azalduz. Eta, gizon lez agerturik, apaldu egin eban bere burua, menpeko eginez heriotzaraino, kurutzeko heriotzaraino.

Horregaitik, Jainkoak goratu egin eban eta izen guztien gaineko izena emon eutsan, Jesusen izenera belaun guztiak makurtu daitezana, guztien belaunak makurtu daitezana, zeruan, lurtean eta lurpean, eta mihin guztiek autortu dagien: Jesu Kristo, Jauna da, Aita Jainkoaren aintzarako.

Jaunak esana.

Escucharemos en la **segunda lectura** un himno que nos dice que Cristo prefirió compartir la tragedia humana para salvar desde dentro.

Horregaitik, kristauok tragedian partaide izan behar dogu laguntza eraginkorra emoteko.

LECTURA DE LA CARTA DEL APÓSTOL SAN PABLO A LOS FILIPENSES – Flp 2,6-11

Cristo Jesús, siendo de condición divina, no retuvo ávidamente el ser igual a Dios; al contrario, se despojó de sí mismo tomando la condición de esclavo, hecho semejante a los hombres.

Y así, reconocido como hombre por su presencia, se humilló a sí mismo, hecho obediente hasta la muerte, y una muerte de cruz.

Por eso Dios lo exaltó sobre todo y le concedió el Nombre-sobre-todo-nombre; de modo que al nombre de Jesús toda rodilla se doble en el cielo, en la tierra, en el abismo, y toda lengua proclame: Jesucristo es Señor, para gloria de Dios Padre.

Palabra de Dios

□ JESU KRISTO GURE JAUNAREN NEKALDIA SAN MATEROREN LIBURUTIK Mt 26,14-27,66

K Aldi haretan, Jesus Gobernadorearen aurrera aurkeztu eben. Gobernadoreak itaundu eutsan:

S «Zu al zara juduen erregea?»

K Jesusek erantzun eutsan:

✠ **«Zeuk dinozu».**

K Abadeburuak eta herriko zaharrak salatu eta salatu ziharduen Jesusen aurka, baina harek ez eban barbarik erantzuten. Pilatok esan eutsan:

S «Ez al dozu entzuten zenbat gauza ataraten daben zure kontra?»

K Jesusek salakuntza bakar bati ere ez eutsan erantzunik emoten-eta, zehatz harriturik egoan Gobernadorea. Pazko-jai guztietan preso bat askatzeko ohiturea eban Gobernadoreak, herriak gura ebana. Bazan orduan preso sonatu bat, Barrabas eritzona. Herria batu zanean, Pilatok itaundu eutsen:

S «Nor gura dozue askatzea, Barrabas ala Jesus, Mesias dalakoa?»

K Baekian-eta bekaitzez emon eutsoela Jesus. Auzitegian jesarririk egoala, emazteak mandatu hau bialdu eutsan:

S «Ez zaitetz sartu errubako Horregaz; asko sufridu dot bart amesetan Hori dala-eta».

K Baina abadeburuek eta herriko zaharrek jentea berotu eben, Barrabasen askapena eta Jesusen heriotzea eskatu egiezan. Gobernadoreak barriro itaundu eutsen:

S «Bietako zein gura dozue askatzea?»

K Hareek erantzun:

S «Barrabas».

K Pilatok esan eutsen:

S «Eta zer egin behar dot Jesusegaz, Mesias dalakoagaz?»

K Danek erantzun eben:

S «Josi kurutzean!»

K Eta harek:

S «Zer oker egin dau, bada?»

K Hareek, gero eta deadar handiagoz:

S «Josi kurutzean!»

K Pilatok, dana alperrik zala eta gainera iskanbila sortzera joiala ikusirik, ura hartu eta eskuak garbitu ebazan jentearen aurrean, esanez:

S «Ez naz gizon honen heriotzaren erantzule. Zeuek ikusi!»

K Herri osoak erantzun eban:

S «Geu eta gure ondorengoak egiten gara horren heriotzaren erantzule!»

K Orduan, Barrabas askatu eutsen eta Jesus, zigortuazo ondoren, haren eskuetan itzi eban, kurutzeratu egien.

Gobernadorearen gudariak jauregira eroan eben Jesus eta gudari-talde osoa batu eben haren inguruan. Soinekoak erantzi eta purpurazko kapea jantzi eutsoen. Arantzaz eginiko koroia ezarri eutsoen buruan eta kainaberea eskuan. Eta, aurrean belaunikaturik, iseka egiten eutsoen, esanez:

S «Agur, juduen erregeal!»

K Txistua botaten eutsoen eta, kainaberea kendurik, buruan jotzen eben. Nahiko iseka egin ondoren, kapea kendu eta bere soinekoak jantzi eutsoezan. Gero, kurutzean jostera eroan eben.

Urtetean, Zirenko gizon bat aurkitu eben, Simon eritzona, eta Jesusen kurutzea eroatera behartu eben. Golgota izeneko lekura heldu ziranean —Golgotak "Buru-hazur" esan gura dau—, behazunez nahastautako ardoa emon eutsoen edatera; Jesusek txastatu eban, baina ez eban edan gura izan. Kurutzean josi ebenean, gudariak Jesusen jantziak banatu ebezan, zotz eginez, eta han gelditu ziran jesarrita Ha zaintzen.

Buruaren gainekaldean kondenazinoaren arrazoa ipini eben idatzita: HAU JESUS DA, JUDUEN ERREGA. Jesusegaz batean gaizkile bi kurutzeratu ebezan, bata eskuman eta bestea ezkerrean.

Handik igaroten ziranek irain egiten eutsoen Jesusi, buruari eragin eta esanez:

S «Santutegia desegin eta hiru egunetan barrero eregiten ei hoan horrek, salbau egik heure burua, Jainkoaren Seme baldin bahaz! Jaitsi hadi kurutzetik!»

K Era berean, abadeburu, lege-maisu eta herriko zaharrek ere burla egiten eutsoen, esanez:

S «Besteak salbatu jozak, eta bere burua ezin salbau. Israelgo erregea ei dok; jaitsi daitela orain kurutzetik, eta sinestuko joagu Beragan. Jainkoagan jarri jok uste ona; libratu dagiala orain, maite baldin bajok; ez joan, bada, Jainkoaren Seme zala esaten?»

K Beragaz kurutzean josirik egozan gaizkile biek ere irain egiten eutsoen.

Eguerditik hirurak arte, ilundu egin zan lurbira osoa. Hirurak inguruan, Jesusek oiho handiz esan eban:

✠ **«Eli, Eli, lema sabaktani»**,

K —hau da: «Ene Jainko, ene Jainko, zergaitik itzi nozu?»—

K Hau entzutean, bertan egozan batzuek esan eben:

S «Eliasi deika jabilk».

K Bat-batean, hareetako batek, lasterka joan, ozpinetan bustitako belakia hartu eta, kainaberra bati muturrean jarriz, edatera emon eutsan. Besteek, ostera, inoen:

S «Egon, ea jatorkon Elias salbatzera».

K Baina Jesusek, barrero deadar handia eginez, azken arnasa emon eban.

Orduan, santutegiko oihala erdiz erdi urratu zan, goitik beheraino; lurrikarea izan zan eta harkaitzak zartatu egin ziran; hilobiak edegi eta hilda egozan santu asko biztu egin ziran. Honeek, euren hilobietatik urten eta, Jesus biztu ondoren, uri santuan sartu ziran eta jente askori agertu jakezan. Lurrikara eta jazoera guztiok ikustean, erromatar ehuntariak eta haregaz Jesus zaintzen egozan besteek, bildurak jota, esan eben:

S «Benetan, Jainkoaren Semea zan Hau ».

Jaunak esana.

□ PASIÓN DE NUESTRO SEÑOR JESUCRISTO SEGÚN SAN MATEO - Mt 26,14-27,66

C. En aquel tiempo, Jesús fue llevado ante el gobernador Poncio Pilato, y este le preguntó:

S. «Eres tú el rey de los judíos?».

C. Jesús respondió:

✠ **«Tú lo dices».**

C. Y, mientras lo acusaban, los sumos sacerdotes y los ancianos no contestaba nada. Entonces Pilato le preguntó:

S. «¿No oyes cuántos cargos presentan contra ti?».

C. Como no contestaba a ninguna pregunta, el gobernador estaba muy extrañado. Por la fiesta, el gobernador solía liberar un preso, el que la gente quisiera. Tenía entonces un preso famoso, llamado Barrabás. Cuando la gente acudió, dijo Pilato:

S. *«¿A quién queréis que os suelte, a Barrabás o a Jesús, a quien llaman el Mesías?».*

C. Pues sabía que se lo habían entregado por envidia. Y, mientras estaba sentado en el tribunal, su mujer le mandó a decir:

S. *«No te metas con ese justo porque esta noche he sufrido mucho soñando con él».*

C. Pero los sumos sacerdotes y los ancianos convencieron a la gente para que pidieran la libertad de Barrabás y la muerte de Jesús.

El gobernador preguntó:

S. *«¿A cuál de los dos queréis que os suelte?».*

C. Ellos dijeron:

S. *«A Barrabás».*

C. Pilato les preguntó:

S. *«¿Y qué hago con Jesús, llamado el Mesías?».*

C. Contestaron todos:

S. *«Sea crucificado».*

C. Pilato insistió:

S. *«Pues, ¿qué mal ha hecho?».*

C. Pero ellos gritaban más fuerte:

S. *«¡Sea crucificado!».*

C. Al ver Pilato que todo era inútil y que, al contrario, se estaba formando un tumulto, tomó agua y se lavó las manos ante la gente, diciendo:

S. *«Soy inocente de esta sangre. ¡Allá vosotros!».*

C. Todo el pueblo contestó:

S. *«Caiga su sangre sobre nosotros y sobre nuestros hijos!».*

C. Entonces les soltó a Barrabás; y a Jesús, después de azotarlo, lo entregó para que lo crucificaran.

C. Entonces los soldados del gobernador se llevaron a Jesús al pretorio y reunieron alrededor de él a toda la cohorte: lo desnudaron y le pusieron un manto de color púrpura y, trenzando una corona de espinas, se la ciñeron a la cabeza y le pusieron una caña en la mano derecha. Y, doblando ante él la rodilla, se burlaban de él diciendo:

S. *«Salve, rey de los judíos!».*

C. Luego le escupían, le quitaban la caña y le golpeaban con ella la cabeza. Y, terminada la burla, le quitaron el manto, le pusieron su ropa y lo llevaron a crucificar.

C. Al salir, encontraron a un hombre de Cirene, llamado Simón, y lo forzaron a llevar su cruz.

Cuando llegaron al lugar llamado Gólgota (que quiere decir lugar de «la Calavera»), le dieron a beber vino mezclado con hiel; él lo probó, pero no quiso beberlo. Después de crucificarlo, se repartieron su ropa echándola a suertes y luego se sentaron a custodiarlo. Encima de la cabeza colocaron un letrero con la acusación: «Este es Jesús, el rey de los judíos». Crucificaron con él a dos bandidos, uno a la derecha y otro a la izquierda.

C. Los que pasaban, lo injuriaban, y, meneando la cabeza, decían:

S. *«Tú que destruyes el templo y lo reconstruyes en tres días, sálvate a ti mismo; si eres Hijo de Dios, baja de la cruz».*

C. Igualmente los sumos sacerdotes con los escribas y los ancianos se burlaban también diciendo:

S. «A otros ha salvado y él no se puede salvar. ¡Es el Rey de Israel!, que baje ahora de la cruz y le creeremos. Confío en Dios, que lo libre si es que lo ama, pues dijo: “Soy Hijo de Dios”».

C. De la misma manera los bandidos que estaban crucificados con él lo insultaban.

C. Desde la hora sexta hasta la hora nona vinieron tinieblas sobre toda la tierra. A la hora nona, Jesús gritó con voz potente:

✠ **«Elí, Elí, lemá sabaqtaní?».**

C. (Es decir: «Dios mío, Dios mío, ¿por qué me has abandonado?»).

C. Al oírlo algunos de los que estaban allí dijeron:

S. «Está llamando a Elías».

C. Enseguida uno de ellos fue corriendo, cogió una esponja empapada en vinagre y, sujetándola en una caña, le dio de beber.

Los demás decían:

S. «Déjalo, a ver si viene Elías a salvarlo».

C. Jesús, gritando de nuevo con voz potente, exhaló el espíritu.

Todos se arrodillan, y se hace una pausa.

C. Entonces el velo del templo se rasgó en dos de arriba abajo; la tierra tembló, las rocas se resquebrajaron, las tumbas se abrieron y muchos cuerpos de santos que habían muerto resucitaron y, saliendo de las tumbas después que él resucitó, entraron en la ciudad santa y se aparecieron a muchos. El centurión y sus hombres, que custodiaban a Jesús, al ver el terremoto y lo que pasaba, dijeron aterrorizados:

S. «Verdaderamente este era Hijo de Dios».

Palabra del Señor